

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Navarra Arenaren kudeaketa-eredua zein izango den erabakiko da kirol- eta kultura-eragileei kontsulta egin ondoren

Alli kontseilaria izan da buru, gaur goizean, irail aldera prest egongo den pabiloiaren ustiatze-plana diseinatuko duen lan-mahaiaren lehen bileran.

Lunes, 03 de marzo de 2014

Íñigo Alli Gizarte Politiketako kontseilaria izan da buru, gaur eguerdian, itxura guztien arabera irailerako Navarra Arena erabilera anitzeko pabiloiaren kudeaketa-eredua eta ustiatze-plana erabakiko duen mahaiaren lehen bileran. Pabiloia Iruñean dago, Sadar estadioaren ondoan.



Navarra Arena erabilera anitzeko pabiloiaren kanpoaldea.

Ezer erabaki aurretik, datozen asteetan, lan-taldea kirolaren eta kulturaren alorreko ekitaldien hainbat eragilerekin elkartuko da, baita antzeko eremuen kudeatzaileekin eta zerbitzuen sektoreko enpresekin ere. Jasotzen duten informazio guztia kontuan hartuta, "lan-mahaiak pabiloia nola irekiko den eta bertan zer motako ekitaldiak, hau da, kirolari, gizarteari, kulturari edo turismoari loturikoak, egingo diren erabakiko du", esan du Alli kontseilariak.

Gizarte Politiketako kontseilariaren arabera, "lan hori egin zen dagoeneko 2009an, baina krisiak eten egin du beste egoera ekonomiko baterako diseinaturiko ustiatze-plana. Hortaz, gaur egungo egoera aintzat hartzen duen beste plan bat prestatu behar da".

Ustiatze-plan berria prestatzen den bitartean, pabiloia eraikitze azken faserako eskaintzak egin ahal izango dira. Azken fasearen aurrekontua 500.000 euro da, eta zorua, kontrakantxa, komunak eta bestelako kontu txikiagoak egin behar dira.

Azpiegituraren eraikuntzari dagokionez, Alli kontseilariak pozik azaldu da, aurrekontuaren % 3 besterik ez delako desbideratu, eta pabiloiaren epe laburreko ikuspegia izan ordez, bost urteko ikuspegia izan behar dela esan du, lan-taldeak egingo duen bezalaxe.

Alli kontseilariak ere esan duenez, 400.000 euro inguruko kostua dute pabiloiaren mantentze-lanek. Horietatik 115.000 euro zaintzarako dira, 200.000 argiaren, uraren eta gasaren kontsumorako, eta sare elektrikora

konektatzeagatiko zergak ordaintzeko. Gainerakoa eraikina kontserbatzeko da.

Lan-mahaia

Alli kontseilariak gain, erabilera anitzeko pabiloian egin den lan-mahaiaren bileran Pruden Induráin Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, Mariano Oto Gizarte Politikako eta Kontsumoko zuzendari nagusiak, Jorge San Miguel [Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko](#) lehendakariak, Javier Lacunza NICDO enpresa publikoko kudeatzaileak eta Ignacio Arbeloa Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko azpiegituren zuzendariordeak ere parte hartu dute.

Taldearen helburua gaur egungo egoeraren arabera Navarra Arena erabilera anitzeko pabiloiaren ustiatze-eredua zehaztea da. Horretarako, dagoen eskaria, mota bereko beste instalazio batzuen ustiatze-estrategiak, jarraituko diren neozio-ildoak eta eskain daitezkeen zerbitzuak identifikatuko dituzte.